BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4614

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 31koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Fundación Proclade Yanapay erakundeak 2006ko GLSFren kontura proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Guatemalako landa-eremuko pertsonen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko erakundeak indartzea» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzen duena.

2006ko azaroaren 27an Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren bidez, Fundación Proclade Yanapay erakundeari 597.425,49 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Guatemalako landa-eremuko pertsonen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko erakundeak indartzea» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko uztailaren 20an bidalitako komunikazioan, 21.996,55 euroko uko-egite eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari dagozkio.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Fundación Proclade Yanapay erakundeari 2006 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Guatemalako landa-eremuko pertsonen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko erakundeak indartzea» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak hirugarren ordainketari dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 21.996,55 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete

igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 31.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.